# Denbora-

## 3 Labirintoa

Praxku barraskiloa larrituta dago; oskola galdu ez du, bada! Lagunduko al diozu bere oskola dagoen lekura iristen?





## 4 Itzalak



Edurne Zuriren ispilua eta hainbat itzal marraztu ditu Maiderrek orri batean. Itzal hauetatik zein da ispiluarena?




## 5 Hizki salda

Zopa berezia prestatu du Martin sukaldariak. Bila ezazu lapikoan dauden hitzak hizkien saltsa horretan.




| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | A | L | A | T | O | K | N |
| A | Z | R | G | J | N | E | J |
| R | A | U | L | O | K | R | E |
| T | S | B | U | O | Z | E | N |
| A | I | U | P | A | T | J | D |
| R | T | R | E | A | E | E | E |
| A | A | U | U | A | N | K | T |
| L | S | T | R | R | U | A | Z |
| M | U | A | P | G | S | M | A |
| A | I | Z | O | O | A | O | A |
| G | O | I | L | L | T | N | T |
| A | T | O | T | G | E | E | A |
| I | O | T | T | A | T | L | M |
| X | K | O | I | I | Z | A | O |
| O | O | E | K | I | A | I | A |
| B | L | U | A | E | G | E | O |
| N | E | K | A | Z | A | R | I |
| I | M | K | I | K | A | O | G |
| A | N | O | R | U | E | N | O |

# -pasak



## 6 Lotu puntuak

Ainhoari txakur txiki bat oparitu diote. Nahiko bihurria da, eta etxeko gauzei kosk egiten hasi da. Zeri egin dion kosk asmatzeko, lotu puntuak.

## 7 Aurkitu irudian

BERRIArako idazlana egin dute haurrek eskolan. Bakoitzak bere modura idatzi du egunkariaren izena, baina hiru modu errepikatu egiten dira. Zein?



Erantzunak: 2.- Hasiberri, leihatila, erokeria, ehiza eta entzumen. 4.- D. 6.- Bota bat.

## Intsektu hegalariak

### eskulana

Uda honetan makina bat intsektu ikusiko zenuen, ezta? Jostailuzko intsektu barregarri batzuk egiten irakatsiko dizugu eskulan honetan.



**Beharrezko materiala**

(Xomorro bakoitzeko)

- Prentsatutako paperarekin egindako bola bat. 5 zentimetro luze izan behar du.
- Jostailuzko begiak.
- Alanbre fina.
- Plastilina.
- Arkatz markagailuak.
- Guraizeak.
- Kartoi mehe zuria.
- Kola.
- Pintzela.





### Nola egin

**1.** Marraztu intsektuaren hegotxoak kartoi mehearen gainean. Kontuan hartu zein intsektu egin nahi duzun, horren arabera hego bat edo gehiago egin beharko baitituzu. Moztu hegoak.



**2.** Hartu paper zati bat, eta zanpatu bolatxo bat eginez; horixe izango da intsektuaren gorputza. Orain, apaindu intsektuaren hegoak eta gorputza arkatz markagailuarekin.



**3.** Itsatsi hegoak gorputzaren sabel aldean. Bi hego badituzu, itsatsi bata bestearen gainean; hegorik handienak lehenengo itsatsi behar dituzu, eta ipini txikienak gero.



**4.** Ezarri aurpegian jostailuzko begiak. Intsektuaren antenak egiteko, moztu bi alanbre zatitxo. Sartu bi antenak begiaren gainaldean. Antenak amaitzeko, hartu pastilina zatitxo bat, eta egin bi bolatxo. Bolatxoak antenaren amaieran sartu behar dituzu. Gure intsektuari azken ukitua emateko, moztu alanbre zati luze bat, eta itsatsi sabel azpian.

